

IRAKASKUNTZA-GIDA

2012/13

Ikastegia 160 - Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

Zikl. 1. zikloa

Plana TRABA102 - Gizarte Langintzan diplomatua

Ikastaroa 2. maila

IRAKASGAIA

16011 - Gizarte-Ikerkuntzarako Metodo eta Teknikak

ECTS kredituak: 10,16

GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK

Ikasgaiaren helburu orokorrak:

Gizarte langileari errealitate sozialarekin etengabeko hartuemanean aritzea eskatzen zaionez, bere soslai profesionala osatuagoa izan dadin, errealitate soziala aztertzeke baliabideak eta formazioa eskaini nahi zaizkio ikasgai honen bidez. Xede horrekin, gizarte ikerketa bat burutu bitarteko urratsak zertan diren, teorikoki eta praktikoki, barneratzea da ikasgaiaren helburua.

Hartara, etorkizunean gizarte langilea ikerketa bat bideratzeko edota besteek egindako ikerketak baloratzeko gai izan dadin.

Aipatu helburuekin, gizarte ikerketarako ikusmolde zein teknika ezberdinak lantzea eta bereiztea da ikasgaiaren helburua. Esku-hartze sozialaren jardunean lagungarri izan dadin, gizarte ikerketa riguroso bati forma emateko eta gauzatzeko prestatzea da ikasgaiaren sakoneko helburua.

Ikerketak bideratzeko ikusmolde kualitatiboaz gain, bereziki, ikerketa-bide kuantitatiboa jorratuko da, eta bildutako informazioaren azterketa estatistikoa egiteko SPSS pakete estatistikoa landuko da, Excel-ekin batera.

Ikasgaiaren helburu espezifikoak:

- ¿ Gizarte ikerketa enpirikoaren funtsezko ezaugarriak ezagutzea.
 - ¿ Gizarte ikerketaren prozesua eta urratsaldiak ezagutzea, metodologia ezberdinek dituzten berezkotasunak bereiztuz.
 - ¿ Gizarte ikerketa baten proiektua sortzen trebatzea.
 - ¿ Ikerketa hipotesiak planteatzen eta aztergarri bihurtzen trebatzea.
 - ¿ Ikerketaren informazio bilketarako teknika egokienak aukeratzen eta prestatzen entsaiatzea.
 - ¿ Bildutako informazioa lantzeko baliabideak ezagutzea.
- Ikasgaiaren zeharkako helburuak
- ¿ Informazioa biltzen, aukeratzen, sintetizatzen eta norbere beharretara egokitzen ikastea.
 - ¿ Hausnarketa sustatzea eta norbere iritzia sortzea eta oinarritzea.
 - ¿ Etorkizun profesionalean, eta egun ere, hain beharrezkoak ditugun abildade sozialak lantzea talde-lanaren bitartez (besteak beste, entzute aktiboa, norbere ikuspegia eta ideiak argitasunez eta zehaztasunez adieraztea (ahoz zein idatziz), elkarlanean aritzea, eta autoplanifikatzen trebatzea)

GAI ZERRENDA

I. ATALA: Gizarte ikerketa

1. Gaia: Errealitate soziala, ezagutza eta zientzia. Metodo zientifikoaren ezaugarriak.
2. Gaia: Gizarte ikerketa eta ikerketa Gizarte Langintzan
3. Gaia: Ikertzeke ikusmolde ezberdinak: aniztasun metodologikoa.
4. Gaia: Metodologia kualitatiboa eta berezkoak dituen teknikak.
5. Gaia: Ikerketa Ekintza Partehartzailearen ikuspegira sarrera.

II. ATALA: Inkesta bidezko ikerketa prozesua

6. Gaia: Metodologia kuantitatiboaren berezkotasunak.
7. Gaia: Zuzeneko eta zeharkako informazio iturriak gizarte ikerketan.
8. Gaia: Gizarte ikerketaren prozesua. Lehen urratsa: Ikerketa proiektua.
9. Gaia: Hipotesiak eta aldagaiak: Kontzeptuen operazionalizazioa eta neurketa.
10. Gaia: Galdesortaren sortze lana.
11. Gaia: Laginketaren oinarriak.
12. Gaia: Informazio bilketa galdesorta bidez.

III. ATALA: Anlisi estatistikoa eta ikerketaren txostena

13. Gaia: Ustiapen estatistikoa. Estatistika deskribatzailea SPSS erabiliz.
14. Gaia: Ikerketaren txostena sortze lana.
15. Gaia: Ikerketaren emaitzen berri ematea.

METODOLOGIA

- X Eskola magistrala
- X Arazoak eta egoerak nola konpondu
- X Laborategiko praktikak
- X Landa praktikak
- X Klasean ikasleen ahozko aurkezpenak (egindako lanei buruzkoak), irakurtaldiak...
- X Klasean bertan talde lanak

Argibideak:

Eskolen dinamika:

Ikaskuntza prozesua esanguratsua izan dadin, eta bide batez abildade sozialak lantzen joateko, oso garrantzitsua da taldeko kideen arteko elkarlana.

Irakasgai honi dagokion irakaskuntza prozesuaren ezaugarri nagusi bat hartuemanaz izango da. Informazio hartuemanaz gain, gela osatuko duten kideen arteko hartuemanaz eta talde lana. Etorkizunean pertsona ezberdinekin aritu beharko dugunez harremanetan, unibertsitateko formazio prozesuak ezagutza espezifikokoak geureganatzeko ibilbidea izateaz gain, aukera aparta da talde-lana esperimendatzeko

EBALUAZIOA

- Garatu beharreko azterketa idatzia
- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Banakako lanak
- Taldeko lanak
- Lanen, irakurketen... aurkezpena

Argibideak:

Zehazki hauek dira ikasgaiaren EBALUAZIOA SISTEMAK

Bi dira ikasgaiaren edukiak lantzeko ikasleak aukera ditzakeen bide nagusiak:

A. Bidea: Asistentzia baldintzarik gabekoa

¿ Azterketa teoriko-praktikoa: 10 puntu

Azterketa prestatzeko landu beharreko gaiak, gelan jorrotutako materialetaz gain (Moodle plataforman bildutako direnak), ikasgaiaren bibliografian oinarrituz osatu ditzake ikasleak.

B. Bidea: Asistentzia baldintzaduna

¿ Teknika kualitatiboaren txostena: 1 puntu

¿ Ikerketa proiektua: Nahitaezkoa. 2 puntu

¿ Ikerketa baten emaitzen txostena eta aurkezpena: Nahitaezkoa. 3 puntu

¿ Azterketa: 3 puntu

¿ Bestelako lanak: 1 puntu

Asistentzia egunero erregistratuko da eta gutxienez %80a bete beharko da (saio teorikoetan nahiz praktikoetan) B bidea jarraitu ahal izateko. Hainbatetan irakasleak gelan egindako lan praktikoa jasoko du.

Bide hau jarraituz ekainean ikasgaia gainditu ezean, irailean azterketa eta Ikerketa Txostena bakarka berregin beharra dago.

B. Ebaluazio bidea

Asistentzia baldintzak bete beharra dago (Irakasleak ez du etorri ezina justifikatzen duen ziurtagiririk jasoko).

Eskolorduetan ohikoa izango da, irakaslearen azalpenetaz gain, taldelanean aritzea, besteak beste, testuak jorrotuz eta besteei azalduz, edota gai baten aurkezpena eginaz.

Hortaz, eskolorduetan jarrera aktiboa izatea ezinbestekoa da. Ikasgaiaren helburuak beteko badira beharrezkoa da guztion inplikazioa eta konpromisoa.

B.1. Teknika kualitatiboaren txostena: (1 p)

B.2. Ikerketa proiektua. Nahitaezkoa (2 p)

B.3. Ikerketa baten emaitzen txostena eta aurkezpena: Nahitaezkoa. (3 p)

Lan hauek (B1, B2 eta B3) egiteko baldintzak Moodlen azalduko dira.

B.4. Azterketa (3 p)

Garatzeko galdera teorikoak eta praktikoak.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

1. BALCELLS I JUNYENT, J. (1994): La investigación social. Introducción a los métodos y las técnicas. Bartzelona: PPU.
2. CEA D¿ANCONA, M.A. (1997): Metodología cuantitativa. Estrategias y técnicas de Investigación Social. Madril: Síntesis.
3. ETXEBERRIA, J. (1998): Estadística. Teoría eta praktika SPSSWIN erabiliz. Usurbil:
4. Elhuyar. IBABE, I. (2001). Datu analisia eta SPSS. Usurbil: Elhuyar.
5. JUARISTI, P. (2003): Gizarte ikerketarako metodoak eta teknikak. Bilbo: EHU.
6. MANHEIM, J.B. eta RICH, R.C. (1988): Análisis político empírico. Métodos de investigación en ciencia política. Madril: Alianza Editorial.
7. RUBIO, M.J. ETA VARAS, J. (1997): El análisis de la realidad en la intervención social. Métodos y Técnicas de Investigación. Madril: Edic. CCS.
8. TAYLOR S.J. ETA BOGDAN, R. (1991): Introd. a los Métodos Cualitativos de Investigación. Madril: Síntesis.
9. CORBETA, P. (2007): Metodología y técnicas de investigación social. Madril: McGraw-Hill.
10. VALLEJOS, A. eta ORTÍ, M. (2007): Métodos y técnicas de investigación social. Madril: Ramón Areces.
11. DIAZ DE RADA, V. (1999): Técnicas de análisis de datos para investigadores sociales. Madril: Edit. Ra-Ma.
12. VISAUTA, B. (1989): Técnicas de investigación social. Bartzelona. PPU

Gehiago sakontzeko bibliografia

-

Aldizkariak

Interneteko helbide interesgarriak